# BLOG-EAN EGITEN DIREN SARREREN ERRUBRIKA

Ikaslearen izena:____________________________________________

| ARLOAK | 4 | 3 | 2 | 1 |
|---|---|---|---|---|
| **Egitura** | Sarrerak baditu izenburua, artikuluaren testua, multimedia elementuak eta etiketak. Artikuluak hedadura egokia du. Esaldi argi eta laburrak ditu. | Etiketak izan ezik, gainerako beste elementu guztiak ditu. Sarrerak hedadura egokia du. Zenbait esaldi luzeegiak dira edo ez oso argiak. | Bi elementu baino gehiago falta da. Laburregia edo luzeegia da. Esaldi asko luzeegiak dira edo ez oso argiak. | Artikuluaren testua soilik idatzi da. Ez ditu hedadura-baldintzak betetzen. |
| **Edukia** | Ageri da artikuluaren helburua zein den. Landu diren edukiak azalduta daude, bai eta nola landu diren ere, eta talde-lanaren balorazio arrazoitua ere egiten da.<br><br>Artikuluaren amaieran, estekak eta iritzi pertsonala gehitzen ditu. | Ageri da artikuluaren helburua zein den. Landu diren edukiak azalduta daude, bai eta nola landu diren ere, baina ez da talde-lanaren balorazio arrazoiturik egiten.<br><br>Artikuluaren amaieran, estekak eta iritzi pertsonala gehitzen ditu. | Ageri da artikuluaren helburua zein den. Azalpenak ez datoz bat eskema batekin edo artikulua garatzeko elementu bat baino gehiago falta da. Artikuluaren amaieran, gehitu dira estekak, baina ez iritzi pertsonala. | Ez da artikuluaren helburua zein den ageri. Azalpenak ez datoz bat eskema batekin eta nahasgarriak dira. Ez du estekarik gehitzen, edo gehitutakoak ez daude zuzenean gaiarekin erlazionaturik edo iturri ez fidagarriak dira. |
| **Multimedia elementuak** | Unitatean erabilitako multimedia elementuak behar bezala txertatuta datoz. | Elementuak txertatuta datoz, baina ez dute tamaina egokirik edo ez daude kokatuta testuan dagokien lekuan. | Elementu bat falta da txertatzeko. Elementuak ez daude kokatuta testuan dagokien lekuan. | Ez da multimedia elementurik txertatu. |
| **Informazioaren antolamendua** | Informazioa ondo antolatuta dago, argia da eta irakur erraza. Paragrafotan banatuta dago, eta paragrafo bakoitzean ideia bat dator jasota. | Oro har, informazioa argia da eta paragrafotan antolatuta dago. | Informazioa ez dago oso argi antolatuta. Ez du irakurketa errazerako aukerarik ematen. | Informazioa ez da argia eta desordenaturik dago, eta, beraz, zaildu egiten du irakurketa. |

cc BY SA

CeDeC-en “Blog-ean egiten diren sarreren errubrika” lizentzia honek babesten du: Creative Commons: aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Lizentzia

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Idazkiaren formatua** | Ideiak zerrendatzeko edo antolatzeko elementuak erabili ditu, hala nola buletak. Pluraleko lehenengo pertsonan idatzita dago. Ez du ortografia akatsik. | Ideiak zerrendatzeko edo antolatzeko elementuak erabili ditu, hala nola buletak. Pluraleko lehenengo pertsonan idatzita dago. Akats ortografikoren bat du | Batzuetan bakarrik erabili ditu ideiak zerrendatzeko edo antolatzeko elementuak, hala nola buletak. Kontakizun berean pertsona gramatikal bat baino gehiago erabili ditu. Zenbait akats ortografiko ditu | Ez du ideiak zerrendatzeko edo antolatzeko elementurik erabili, hala nola buletik. Pertsona gramatikala ez du kontuan hartu. Dezente akats ortografiko ditu. |

CeDeC-en "Blog-ean egiten diren sarreren errubrika" lizentzia honek babesten du: Creative Commons: aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Lizentzia